

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria

Patricia Fanlo Mateo



 **Jaitsi irudia**

Huescan jaio zen 1978an. Ezkonduta dago eta ez du seme-alabarik.

Medikuntza eta Kirurgian lizentziaduna da (2002) Zaragozako Unibertsitatean, eta Osasun Zientzietako doktorea (2017) Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ingelesa, alemana eta frantsesa menderatzen ditu.

Masterra Zuzendaritza Medikoan eta Kudeaketa Klinikoan, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalan (UHUN), 2022ko irailean, eta Boston Consulting Group-en eraldaketa digitaleko ikastaroa jaso zuen Virginiako Unibertsitatean 2023ko abuztuan.

Barne Medikuntzako barne-mediku egoiliar gisa hasi zuen bere ibilbide profesionala Bideko Ama Birjina Ospitale zaharrean (2003-2008), 2009az geroztik Barne Medikuntzako fakultatibo espezialista gisa ari da lanean, plaza finkoarekin, Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Barne Medikuntzako Zerbitzuan, eta 2012az geroztik Gaixotasun Autoimmunikoen Sistemikoen Unitateko eta Gaixotasun Minoritarioen eta Trantsizioko Gaixotasunen Kontsultako koordinatzailea da.

Bere jarduera profesionala Gaixotasun Autoimmunikoen Sistemikoen eta Gaixotasun Minoritarioen asistentzian, irakaskuntzan eta ikerketan oinarritu da. Doktoratu aurreko eta ondorengo hainbat egonaldi egin ditu hainbat zentroetan: Bartzelonako Unibertsitari clínic ospitaleko GIBaren Ospitalizazio Gelan eta infekzio nosokomialen gelan, Santanderreko Marques de Valdecilla Ospitaleko Pneumologia Zerbitzuko Transplante Unitatean, Zurich hirian, Munich hiriko Rheumaeinheit Medizinische Poliklinik zentroan, Boston hiriko Joslin Diabetes Center ospitalean, Bolonia hiriko Diabetes Summer School-ean, Cambridge Addebrook Ospitaleko Unit of Lupus and Vasculitis unitatean, eta Siena Unibertsitateko AIDA PRECEPTORSHIP izan da ere.

Arlo akademikoan, 100 artikulua baino gehiago argitaratu ditu estatuko eta nazioarteko aldizkari zientifikoetan. COVID, Lupus eta vasculitis bezalako gaixotasunak tratatzeko nazioarteko dozena bat saiakuntza klinikotan eta erregistro nazionaletan parte hartu du Nafarroako Ikertzaile Nagusi gisa, eta pandemian zehar COVID-19 larria tratatzeko saiakuntza kliniko nazional baten koordinatzailea izan da. Nafarroako COVID iraunkorraren erregistroaren

koordinatzailea da.

Nafarroako Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko irakasle kliniko elkartua izan da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) 3. motako irakasle elkartua da (Osasun Zientzien Departamentua, 2023-2024 ikasturtea). Sari nazionalen eta Nafarroako Medikuen Elkargoaren VII. Senior Bekaren irabazlea izan da 2018an.

Halaber, master programetan irakatsi du hainbat unibertsitatetan, hala nola Bartzelonako Unibertsitatean. Era berean, nazio mailako biltzarrak eta bilerak antolatu ditu Gaixotasun Autoimmuneen eta Minoritarioen esparruan.

Azkenik, jarduera garrantzitsua garatu du nazioko eta Europako elkarte zientifikoetan. SEMI (GEAS) elkarteko Gaixotasun Autoimmuniko Sistemikoen Taldeko koordinatzailea izan da, Espainiako Gaixotasun Autoimmune Sistemikoen Espainiako Elkarteko (SEMAIS) presidentea, SOMYMeko (Sociedad Vasco-Navarra-Aragonesa-Riojana -Cántabra Multidisciplinar de Enfermedades Menores y Metabolopatías) presidentea eta Metabolismoaren Sortzetiko Akatsak Aztertzekeo Espainiako Elkarteko (AECOM) eta European Vasculitis Society (EUVAS) elkarteko kidea.

2015etik 2019ra bitartean Nafarroako Alderdi Sozialistako zinegotzi izan zen Iruñeko Udalean, eta 2019-2023 legegintzaldian foru-parlamentari izan zen, Talde Parlamentario Sozialistaren Osasun Batzordeko bozeramaile gisa.

2023ko abenduan, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari izendatu dute, Nafarroako Alderdi Sozialistak proposatuta.